

ESPERIENTZIAREN IZENA: Emakumearentzako Laguntza eta Aholkularitza Juridikoko Zentroa, WCLAC



ONARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Emakumearentzako Laguntza eta Aholkularitza Juridikoko Zentroa, WCLAC
- **Erakunde mota:** GKE.
- **Sortze-urtea:** 1991
- **Jarduera-sektoreak:** Emakumeen eskubideak
- **Egitura:** Soldatapeko pertsonala
- **Kokapena:** Jerusalem, Ramala, Hebron eta Belen.
- **Webgunea:** <http://www.wclac.org/>
- **Esperientziak jorratzen duen gaia:** Emakumearentzako Laguntza eta Aholkularitza Juridikoko Zentroa, WCLAC.
- **Jarduera eremua:** Nazionala.

HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Randa Siniora, zuzendari nagusia
- **Telefonoa:** (+972) 0 598 919 134
- **Helbide elektronikoa:** randa@wclac.org

SINTESIA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Women's Centre for Legal Aid and Counselling (Emakumearentzako Laguntza eta Aholkularitza Juridikoko Zentroa) Palestinako gobernuz kanpoko erakundea da, irabazi asmorik gabea. Genero-berdintasuna eta justizia soziala oinarri dituen palestinar gizarte demokratikoa sortzeko helburua du. Jerusalemen sortu zen, 1991n, eta aholku- estatus berezia du Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan. Berdintasuna eta justizia soziala oinarri dituen ikuspegi feminista proposatzen duenez, WCLAC zentroak eginkizun erabakigarria du palestinar gizarteko genero-indarkeriaren aurkako borrokan, bai eremu publikoan, bai pribatuan.

WCLAC zentroak aurre egin nahi die palestinar gizarteko genero-indarkeriaren arrazoi eta ondorioei, baita, israeldarren okupazioa dela eta, gizartearen militarizazio gero eta handiagoak generoaren ikuspegitik dakartzan ondorioei ere. Horretarako, WCLAC zentroak lan egiten du palestinar emakumeek historian zehar jasan dituzten axolagabekeria, kultura-legatu negatiboa eta diskriminaziozko jokabide sozialak desagerrarazteko, baita Palestinako Lurralde Okupatueta israeldarren indarkeriaren biktima diren emakumeen beharrei erantzuteko ere. Palestinako emakumeen eskubideen defentsan liderra den aldetik, WCLAC harro dago emakumeentzako laguntza eta aholkularitza juridiko eta soziala eta babes-zerbitzuak eskaintzeko hartu duen konpromiso irmoaz, eskubideak urratzea ohiko jardunbidea den eta emakumearen eskubideei muzin egin ohi zaien testuinguru batean.

TESTUINGURUA

Zeuden beharrak: Ia bi hamarkadetan, zentroak erantzuna eman die, alde batetik, palestinar gizarteko emakumeen aurkako diskriminazioari eta indarkeriari, eta bestetik, israeldarren okupaziotik askatzeko. WCLAC zentroarentzat, bi gaiek berebiziko garrantzia dute eta, jakina, elkarri lotuta daude.

Aldeko aurrebaldintzak: WCLAC zentroak harreman estuak ditu finantza-babesleekin eta nazioarteko laguntzaileekin. Palestinako Emakumeen Mugimendua

Aurkako aurrebaldintzak: Palestinako lurraldeen etengabeko okupazio militarrek mugatu egiten ditu emakumeen segurtasuna, independentzia eta autodeterminazioa, eta haien herritartasuna eragozten du Palestinako nazio-estatu batean. Gainera, okupazioaren aurkako erresistentzia nazionala ere oztopo izan daiteke emakumearen garapenerako, emakumearen beharrak garrantzi gutxiagoko kontutzat hartzen dituelako.

INFORMAZIO OROKORRA



WCLAC zentroaren helburua da emakume herritarra ahalduntzea palestinarrak gizarte zuzen eta bidezko batean, non giza eskubide guztiak erabil ditzakeen.

WCLAC Palestinako gobernu kanpoko erakunde feminista da. Emakumearen giza eskubideak babestu eta sustatzeko egiten du lan, giza eskubideen nazioarteko estandarren esparruan. Helburu horrekin, jarraipen-, aholkularitza- eta dokumentazio- lanak egiten ditu tokiko eta nazioarteko eremuetan; zerbitzu sozialak eta juridikoak eskaintzen dizkie indarkeriaren biktimak diren emakumeei eta giza eskubideak urratu dizkieten emakumeei; kontzientziazio, aholkularitza, prestakuntza eta eraldaketa juridikoari buruzko programak gauzatzen ditu genero-berdintasuna bermatzeko; eta oinarritzko erakundearen eta boluntario-taldearen ahalmena garatzen du. Hori guztia betetzeko, antolakuntza eraginkorra du, eta doan lan egiten du programa, administrazio-unitate eta eskualde-delegazioen bidez. Haren pertsonala espezializatua eta kualifikazio handikoa da, eta zentroaren misioarekin eta ikuspegiarekin konpromiso irmoa du.

Helburu estrategikoak

1. helburu estrategikoa: Diskriminazioaren eta indarkeriaren biktimak diren emakumeak babesten eta ahalduntzen laguntzea.
2. helburu estrategikoa: Emakumearen eskubideak sustatu eta emakumearen aurkako jarduera kaltegarriei aurre egitea.
3. helburu estrategikoa: Erakundearen eta pertsonen gaitasuna garatzea, WCLAC zentroaren iraunkortasuna, eraginkortasuna eta efizientzia bermatzeko.

Dokumentazio eta Aholkularitza Unitatea

WCLAC zentroaren Dokumentazio eta Aholkularitza Unitateak printzipio feministak ditu oinarri, emakumeari buruzko ezagutza sortzeko eta emakumearen eskubideak agenda politikoan sustatzeko. Borroka egiten du genero-berdintasuna sustatzen duten nazioarteko estandar juridikoak eta gizarte-arauak kulturaren eta legearen aldetik aintzat har daitezzen, estandar eta arau horien bidez defendatu, sustatu eta babestuko baititu emakumeen eskubideak

Zerbitzu Unitatea

Zerbitzu Unitateak lege-aholkularitza, auzitegien aurreko ordezkaritza, eta laguntza eta aholkularitza sozialak hartzen ditu barne. WCLAC zentroaren lanaren bizkar-hezurra da, nahiz eta erakundearen jarduera-planak gaur egun beste gai asko ere aurreikusten dituen. Zerbitzu Unitateak larrialdietarako harrera-zentroak kudeatzen ditu eta kontzientziazio-lantegi ugari antolatzen. Horrez gain, oinarritzko erakundearen lan juridikoa eta soziala gainbegiratzen du, eta WCLAC zentroaren ordezkarria da Palestinako Agintaritza Nazionalaren Elikaduraren Pentsio Fondoaren aholku- batzordean.

Gaitasunak Eraikitze Unitatea

WCLAC zentroaren Gaitasunak Eraikitze Unitateak Palestinako lurralde okupatueta jarduten du, indarkeriaren biktimak diren emakumeei zerbitzuak eskaintzen eta patriarkatuaren aztarna diren genero-jarduerei aurre egiten.